

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, DONOSTIAKO UDALAREN 2015-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den ekainaren 29an Donostiako Udalaren eta bere tokiko 3 erakunde autonomoen, 2 enpresa erakunde publikoen eta 9 sozietate publikoen ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2015eko ekitaldikoa.

HKEEk **aldeko iritzia** eman du Donostiako Udalaren **Kontu Orokorra** osatzen duten erakunde guztien kontuei dagokienez, unean uneko salbuespen batzuetan izan ezik. Udalean kontularitzako doiketak atzeman dira, Diruzaintza Geldikina 15 milioi euroan murriztuko luketenak eta aurrekontuko likidazioak ez ditu 15,8 milioi euroren konpromiso kredituak barne hartzen. Bestetik, akatsak azaleratu dira ibilgetuaren balioan, bai Udalean, bai erakunde autonomo eta Donostiako Sustapena, SA sozietatean. Azkenik azpimarratu da Kontu Orokorren oroitidazkian ez dagoela informaziorik zenbait erreklamazio judiziali dagokienez.

Txostenak fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorretik eratorritako **finantza egoera** aztertu du eta azpimarratu du azken 2 ekitaldietan **kapital eragiketen gastua sortutako aurrezki garbiarekin finantzatzea** lortu duela, zorra areagotu gabe. Gainera, 2015ean nabarmen **hazi** da **Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina**, batik bat, Lurzoruaren Udal Ondarea besterentzetik eskuratutako diru-sarreraren eta Udal Finantzaketarako Foru Funtse gehitu izanaren ondorioz.

Halaber, txostenak ondorioztatu du Udalaren kontu-hartzaitzak jaulkitako txostenaren arabera, 2015ean **aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun eta gastuaren araua bete dela**. Udalaren mendeko sozietate ez finantzario modura sailkatutako erakundeei dagokienez, Kontu-hartzaitzak ondorioztatu du orekan daudela edo finantzatzeko gaitasuna erakusten dutela.

Udalak eta gainerako erakundeek **zuzentasunez bete dute euren ekonomia-finantza jarduera arautzen duen legezko araudia**; alabaina, Udalean 2 kontraturen luzapena eta Kultura Enpresa Erakunde Publikoan beste kontratu baten luzapena epeak iraungiak zirela gauzatu da; gainera, Udalak 890.389 euroren zenbait gastu publikotasun eta lehia printzipioak urratuta gauzatu du.